

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasun Departamentuak sexu-harremanetan preserbatiboa erabili eta GIB detektatzeko proba egin behar dela gogoratu du

*Diagnostikatutako GIB kasuen % 90 sexu bidezko transmisioarekin lotuta dago, eta joera hau bere horretan mantendu da azken urteetan*

Osteguna, 2018.eko azaroak 29

Heldu den larunbatean, abenduak 1, HIESaren aurkako Munduko Eguna ospatuko dela eta, Osasun Departamentuak, prebentzioaren garrantzia gogoratuz, dei egin die herritarrei eta bereziki gazteei, sexu-harremanetan senez joka dezaten preserbatiboa erabiliz, eta GIB detektatzeko proba egin dezaten.

Sexu-Transmisiozko Infekzioak (STI) osasun publikoaren arloko arazo garrantzitsua dira mundu osoan. Azken hamarkadan, sifilis eta gonokozia kasuen kopurua dexente igo da Estatuan eta Nafarroan, beste STI batzuekin batera. GIBek eragindako infekzioa, gure artean STIen artean sailkatuta dagoena, 41 kasu berrirekin egonkortu da Nafarroan 2017an.

HIESaren epidemia hasi zenetik 2017ko abendura arte, GIBek eragindako 2.093 infekzio diagnostikatu dira Nafarroan bizi diren herritarren artean; gehienak, 80ko hamarkadaren bukaeran eta 90ko hamarkadaren hasieran. Geroztik, tasa murriztuz joan zen, 2008an izandako 100.000 biztanleko 4,5 kasuko gutxieneko mailara iritsi arte, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (NOPLOI) 100. Txostenean zehaztu denez.

Azken bost urteetan diagnostikatutako GIB kasu berrien % 81 gizonei dagokie. Kopuru honen % 68 gizonen arteko babesik gabeko sexu-harremanekin lotuta dago, eta bigarren transmisio kategorian babesik gabeko harreman heterosexualak dira (% 25), injektaturiko drogen kontsumoari kasuen % 5 baizik ez dagokiolarik.

Emakumeen artean, babesik gabeko harreman heterosexualen nagusitasuna asko ere nabariagoa da (% 93), eta injektaturiko drogen kontsumoari atxikitako transmisioa tasa ere % 5koa da.

Azken bost urteetan diagnostikatutako GIB kasu berrien % 89 15 eta 54 urte bitarteko pertsonen dagokie, eta intzidentzia handieneko adin-tartea 35 eta 44 urte bitartekoa da, GIB diagnostikoak adin-tarte guztietan eman ziren arren.

Diagnostikoen % 40 berankorra izan da, hots, GIBek eragindako infekzioa HIESarekin batera diagnostikatu da. Honek esan nahi du kutsatuta dauden pertsona askok ez dakitela oraindik gaixotasuna hartu dutenik, eta ondorioz, kutsatzen jarraitzeko arriskua duela, 2,7 kasu berri

eraginez pertsona bakoitzeko, eta aldi berean, ez direla profitatzen beste eritasun batzuk hartu edo hiltzeko aukerak murriztuko lizkieketen tratamenduez.

Egun, babesik gabeko sexu-harremanak dira transmisioen kausa nagusia, epidemiaren hasieran ez bezala, izan ere, garai hartan drogak injektatzeko materiala partekatzeagatik transmititzen zen nagusiki.

### **Prebentzioaren eta tratamenduen inpaktua**

HIESari buruzko diagnostikoetan, GIB infekzioaren etaparik aurreratueneko kasuetan nahiz heriotzatasan, 90ko hamarkadaren erdialdiaz geroko beheranzko joera mantendu da, garai hartan erabiltzen hasi ziren eraginkortasun handiko tratamendu antirretobiralen eraginez. Egungo tratamenduei esker, oso modu eraginkorrean murrizten ahal da birus kopurua, eta bizirik jarraitzeko aukera gainerako biztanleenaren parekoa da. Gainera, beste pertsona batzuk kutsatzeko arriskua murrizten dute.

Azken urteetan diagnostikatutako gizonen kopuruak emakumeen kopurua laukoizten du, epidemiaren bilakaera historikoan izandako joerari jarraiki.

Kontuan harturik kutsatuta daudela dakiten pertsonak birusaren aurkako tratamendua hartzen dutela, eta ondorioz, infekzioa transmititzeko aukera txikiagoa dutela, eta hala eta guztiz ere, diagnostikoen kopurua bere horretan mantentzen dela, azalpen bakarra sexu praktika arriskutsuen maiztasun handia da.

Horren harira gogoratu behar da sartzea tarteko duten sexu-harremanetan preserbatiboa erabili behar dela, salbu eta beste pertsonak horrelako eritasunik ez duela segurtasun osoz jakin daitekeen kasuetan.

Kontuan izan beste metodo antikonzeptiboek ez dituztela sexu-transmisiozko infekzioak.

GIB detektatzeko proba erraza eta eskuragarria da. Doan egin daiteke edozein osasun zentrotan, baita Sexu eta Ugalketako Osasun arretarako Zentroetan (CASSyR) eta GKEen zentroetan ere (Nafarroan, SARE eta

HIESaren aurkako Herritarren Batzordea ).

### **Abenduaren 1<sup>a</sup>, HIESaren aurkako Munduko Eguna**

Abenduaren 1ean ospatuko da HIESaren aurkako Munduko Eguna. Horren kariatara, bihar, ostirala, azaroak 30, 11:00etatik aurrera, *"Ezagutzen baduzu, zure begirada eradatzen da"* delako manifestua irakurriko da Nafarroako Parlamentuan.

Gainera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko Ekitaldi Aretoan, *"GIBek eragindako infekzioaz mintzo: arreta integrala"* izenburuko manahingurua egingo da, honako hauen parte-hartzearekin: Lázaro Elizalde, Osasun Departamentuko Osasun-Herritartasunaren Zerbitzuko zuzendaria; Santiago Urmeneta, Reina Sofia Ospitaleko gizarte langilea; eta Teresa Rubio, ospitale bereko Barne Medikuntzako espezialista.